

## IMMIGRAZIOA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

Immigrazioa fenomenorik garrantzitsuenetakoa da Espainiako gaurko gizartean, demografiari zein gizarteari dagokionez. 13. panoramikan immigrazioak gizartearen ikuspuntuan duen garrantzia aztertu genuen eta azterketa horretan, aldartea eta iritzia argi bereiztu genituen. Oraingo panoramika honetan, atzerritarren immigrazioak Espainiako Autonomia Erkidegoetan eta hirietan izan duen bilakaerari buruz aritzea erabaki dugu, EAEn finkatu diren immigranteen ezaugarriak zehazteko asmoz.

### Atzerritarren populazioaren bilakaera Autonomia Erkidegoen arabera


1. grafikoa

Atzerritarren immigrazioaren hazkundera, Espainiako Autonomia Erkidegoen arabera  
Zerbaki indizeak. 1998-2006.

1. taulan, atzerritarren populazioak Autonomia Erkidegoetan izan duen bilakaera ikus daiteke. Atzerritarren populazioa nabarmen handiagotu da ia Estatuko Autonomia Erkidego guztietan; salbuespenak Ceuta eta Melilla dira.

Espainian, 1998 eta 2006 bitartean, biztanleen guztizko kopurua % 12 handiagotu da eta, ondorioz, 4.856.300 pertsona gehiago daude. Hazkunde hori gauzatzen duten pertsonetako 3.507.100 atzerritarrak dira eta nazionalitate espainiarra dutenak 1.340.000 dira. Beste era batera esanda, espainiarren populazioa apur bat handiagotu da eta atzerritarren populazioa 6,5 bider handiagotu da. Hala ere, bilakaera desberdina izan da Autonomia Erkidego batzuetan eta bestetan, bai kopuruari, bai eritmoari dagokienez, eta irizpide anitz interesgarriak daude.

Zerbaki indizeen arabera, EA guztietan atzerritarren populazioa nabarmen handiagotu da. Esan berri dugunez, Espainian, atzerritarren guztizko populazioa % 650 handiagotu da, baina bost Autonomia Erkidegotan % 1.200 baino gehiago handiagotu da: Murtzian (% 1.587), Errioxan (% 1.380), Gaztela-Mantxan (% 1.347), Aragoian (% 1.343) eta Nafarroan (% 1.286).



Iturria: EInko datuak.

### 1. taula. Atzerritarren populazioaren bilakaera Espainian Autonomia Erkidegoen arabera. 1998-2006

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Zerbaki Indizea
Andaluzia	99.781	110.114	128.916	164.145	212.202	282.901	321.570	420.207	488.928	490
Aragoi	7.846	8.938	12.051	25.132	44.028	61.896	77.545	96.848	105.361	1.343
Asturias	6.029	6.048	7.859	10.848	14.846	19.691	22.429	26.797	30.258	502
Balear Uharteak	38.093	45.017	54.729	73.614	99.744	126.505	131.423	156.270	167.751	440
Kanariar Uharteak	55.218	62.677	77.196	107.930	143.138	179.493	185.781	222.260	233.447	423
Kantabria	3.147	3.463	4.273	6.833	10.334	13.677	16.364	20.547	23.834	757
Gaztela-Mantxa	9.854	10.292	13.854	27.887	48.123	70.899	88.858	115.223	132.725	1.347
Gaztela eta Leon	15.121	16.000	18.381	26.572	42.640	59.440	71.300	91.318	106.159	702
Katalunia	121.361	144.925	181.598	257.354	382.067	543.008	642.846	798.904	913.757	753
Extremadura	4.082	7.476	8.713	11.627	15.125	17.885	20.066	25.341	27.467	673
Galizia	19.693	21.787	25.602	33.058	42.462	53.808	58.387	69.363	73.756	375
Errioxa	2.539	3.320	4.397	8.193	15.288	20.570	24.988	31.075	35.037	1.380
Madril	115.202	134.165	165.734	305.656	444.440	589.215	664.255	780.752	800.512	695
Murtzia	11.916	17.237	26.189	55.458	83.511	113.912	132.918	165.016	189.053	1.587
Nafarroa	4.313	5.971	9.188	19.497	30.686	38.741	43.376	49.882	55.444	1.286
Euskadi	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	563
Valentzia	102.118	130.192	156.207	199.574	301.143	413.760	464.317	581.985	668.075	654
Melilla	2.460	1.447	4.803	6.561	6.425	6.333	5.874	2.891	3.982	162
Ceuta	3.114	3.093	3.050	3.281	3.334	3.203	2.863	3.037	3.078	99
Atzerritar. pop. guztira	637.085	748.954	923.879	1.370.657	1.977.946	2.664.168	3.034.326	3.730.610	4.144.166	650
Espainiar. pop. guztira	39.215.566	39.453.206	39.575.912	39.746.185	39.859.948	40.052.896	40.163.358	40.377.920	40.564.798	103
Populazioa guztira	39.852.651	40.202.160	40.499.791	41.116.842	41.837.894	42.717.064	43.197.684	44.108.530	44.708.964	112

Iturria: EInko datuak.

Aipatutako Autonomia Erkidegoetako hiruk probintzia bakarra dute. Horrez gain, hiru erkidego horiek datu komun adierazgarria dute: denboraldiaren hasieran, erkidego horietan ia ez zegoen biztanle atzerritarrik.

Gainerako Autonomia Erkidegoetan, immigrazioa lau eta zortzi bider bitartean handiagoz da. Egoera horretan daude 1998an biztanle atzerritarren kopuru handia zuten eta gaur egun ere kopuru handia mantentzen duten Autonomia Erkidegoak. Katalunia da, gaur egun, atzerritarren populaziorik handiena duen Autonomia Erkidegoa; 900.000 atzerritar bizi dira bertan, eta Kataluniaren ostean Madril (800.000 baino gehiago) eta Valentzia (ia 670.000) dira nazionalitate espainola ez duten pertsona gehien bizi diren erkidegoak.


Lortutako datuen ondorioz, sei Autonomia Erkidegotan atzerritarren kontzentrazioa oso handia dela ikus daiteke, zeren erkidego horietan atzerritarren populazioaren % 80 biltzen baita: Katalunian, Madrilen, Valentzian, Andaluzian, Kanariar Uharteetan eta Murtzian. 1998an ere, gutzitzkoarekiko atzerritarren ehuneko bera bizi zen erkidego horietan. 2. taulan, gutzitzko populazioari buruzko datuak azaltzen dira (espainiarrak, atzerritarrek eta Autonomia Erkidego bakoitzeko atzerritarren ehunekoa). Aipatzekoa da, ehuneko handienak immigrante kopuru absolutu handiena duten Autonomia Erkidegoetan daudela, hau da, Mediterraneokoetan eta Madrilen. Mediterraneoko erkidegoetako immigrazioari dagokionez, bi mota bereizten dira: bata arrazoi ekonomikoengatik immigrazioa, ekonomia-sektore jakin batzuetan biltzen dena (nekazaritzan, eraikuntzan eta turismoan). Eta bestea, herrialde garatuengatik ongizatearekin lotutakoa, batez ere turismoak erakarritakoa eta erretira ostean behin betiko bizitzera etorritakoa. Gero, pisu absolutu txikiagoa izan arren, atzerritarren ehuneko handia duten erkidegoak daude: Nafarroa, Errioxa eta Aragoi, Ebro ibaiaren ingurukoak, alegia. Azken horietan, lehen esan dugunez, nekazaritza oso garrantzitsua da. Hirugarren taldea, ehuneko txikiarekin, barneko eta Kantauri aldeko erkidegoek osatzen dute, % 5eko indizea gainditzen ez dutenak.

## 2. Autonomia Elkarteetako atzerritarren populazioaren banaketa, jatorrizko kontinenteen arabera.

Espainian bizi diren atzerritarren populazioaren bi heren Europatik (% 38,8) eta Amerikatik (% 36,9) datoz eta hamar atzerritarretako bi (% 18,9) afrikarrak dira. Espainian bizi diren atzerritarren % 5,3 baino ez da Asiakoak.

### 2. grafikoa

Atzerritarren populazioaren banaketa Autonomia Erkidegoen arabera 1998-2006 (%)



Iturria: EINKo datuak.

## 2. taula. Atzerritarren populazioa eta gutzitzko populazioa Espainian, Autonomia Erkidegoen arabera. 2006

	Gutzitzko populazioa	Espainiarren populazioa	Atzerritarren gutzitzko pop.	Gizonezko atzerritarrek	Emakume atzerritarrek	Atzerritarren %
Balear Uharteak	1.001.062	833.311	167.751	86.433	81.318	16,8
Valentzia	4.806.908	4.138.833	668.075	360.384	307.691	13,9
Murtzia	1.370.306	1.181.253	189.053	113.888	75.165	13,8
Madril	6.008.183	5.207.671	800.512	402.294	398.218	13,3
Katalunia	7.134.697	6.220.940	913.757	504.858	408.899	12,8
Kanariar Uharteak	1.995.833	1.762.386	233.447	120.811	112.636	11,7
Errioxa	306.377	271.340	35.037	20.171	14.866	11,4
Nafarroa	601.874	546.430	55.444	29.971	25.473	9,2
Aragoi	1.277.471	1.172.110	105.361	58.648	46.713	8,3
Gaztela-Mantxa	1.932.261	1.799.536	132.725	74.100	58.625	6,9
Andaluzia	7.975.672	7.486.744	488.928	266.149	222.779	6,1
Melilla	66.871	62.889	3.982	1.899	2.083	6,0
Gaztela eta Leon	2.523.020	2.416.861	106.159	54.409	51.750	4,2
Kantabria	568.091	544.257	23.834	11.826	12.008	4,2
Ceuta	75.861	72.783	3.078	1.521	1.557	4,1
Euskadi	2.133.684	2.048.142	85.542	43.494	42.048	4,0
Asturias	1.076.896	1.046.638	30.258	13.936	16.322	2,8
Galizia	2.767.524	2.693.768	73.756	35.531	38.225	2,7
Extremadura	1.086.373	1.058.906	27.467	15.146	12.321	2,5
<b>Espainia gutzira</b>	<b>44.708.964</b>	<b>40.564.798</b>	<b>4.144.166</b>	<b>2.215.469</b>	<b>1.928.697</b>	<b>9,3</b>

Iturria: EINKo datuak.

Autonomia Erkidego bakoitzeko atzerritarren populazioa eremu geografikoen arabera aztertuz gero, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke. Mediterraneoko Autonomia Erkidegoetan, 15 kideko Europako atzerritarren kopurua gainerako erkidegoetako baino handiagoa da. Europako atzerritar horiek, erkidego batzuetan, atzerritarren gutzitzko populazioaren herena dira (Valentzian, % 32,7 eta Andaluzian, % 32,4) eta Uharteetan ehunekoa handiagoa da: hamar atzerritarretako lau 15 kideko Europako herrialderen batekoa da (Balearretan % 41,5 eta Kanarietan % 45,6)

Autonomia Erkidegoen beste multzo batean, latinoamerikarrak dira kolektiborik handiena (Asturiasen, % 54,2, Galizian, % 52,3, Kantabrian, % 51,9, Nafarroan, % 50,4, eta Euskadin, % 48,3). Halaber, Madrilen, latinoamerikarrak % 50,3 dira.

Afrikarren kolektiboa, batez ere Magrebekoek osatzen dutena, garrantzitsuagoa da Extremaduran (% 38,8) eta Murtzian (%29), Estatu osorako diseinatutakoaren antzeko mapa duten erkidegoetan baino (atzerritarren populazioaren gehiengoa europarra eta latinoamerikarra).

Orain, eremu geografiko bakoitzeko atzerritarren populazioa aztertuko dugu, Autonomia Erkidegoetan nola banatuta dauden kontuan hartuta. Europar Batasuneko dagokionez, hamarretik zazpi Mediterraneo aldean bizi dira (% 26 Valentzian, % 18,8 Andaluzian, % 14,4 Katalunian eta % 12,7 Kanarietan). Batasunetik kanpoko erdiak Madrilen (% 23,5) eta Valentzian (% 21,2) bizi dira.

Magrebekoen herena Katalunian bizi da (% 32). Halaber, Espainian bizi diren latinoamerikarren erdia Katalunian (% 22,3) eta Madrilen (% 26,8) daude.

## 3. Migrazioen feminizazioa

Esan dugunez, Espainiako atzerritarren populazioaren gehiengoa duten kontinenteak Europa eta Amerika dira. Europarrei dagokionez, emakumeak % 47,7 dira eta latinoamerikarren kasuan emakumeak erdia baino gehiago dira, hau da, % 54,2. Azkenik, Afrikako atzerritarren populazioaren kasuan, emakumeak kolektibo osoaren herena dira (% 32).

Autonomia Erkidego gehienetan, gizonezkoen ehunekoa emakumeena baino apur bat handiagoa da, Asturiasen, Galizian, Kantabrian eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan izan ezik. Gizonezko gehien duen immigrazioa honako erkidego hauetan dago: Murtzia (% 60,2), Errioxa (%57,6), Gaztela eta Mantxa (% 55,8), Aragoi (% 55,7) eta

**3. taula. Atzerritarren populazioaren banaketa eremu geografikoaren arabera, Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta (% bertikalak)**

	EB15	EB+10	Gain. Europa	Magreba	Gain. Afrika	Iparramerika	Latinoamerika	Txina	Gain. Asia
Andaluzia	18,8	11,8	10,6	14,5	12,9	17,4	7,7	7,5	7,0
Aragoi	0,8	2,6	5,2	2,6	6,1	1,6	2,0	2,5	1,1
Asturias	0,6	1,5	0,5	0,3	0,7	1,5	1,1	0,7	0,2
Balear Uharteak	8,3	3,8	1,9	2,9	3,5	3,2	3,5	2,5	2,1
Kanariar Uharteak	12,7	4,1	1,4	2,9	4,4	3,0	5,0	5,1	6,1
Kantabria	0,3	0,3	0,7	0,2	0,5	0,9	0,8	0,5	0,3
Gaztela eta Leon	1,7	2,8	4,5	2,0	1,5	2,2	2,7	1,9	1,5
Gaztela-Mantxa	0,7	2,8	8,1	3,4	1,2	1,6	2,8	1,5	1,1
Katalunia	14,4	15,0	14,7	32,0	30,6	23,1	22,3	33,2	47,5
Valentzia	26,0	20,1	21,2	11,2	9,9	8,8	11,7	12,2	10,2
Extremadura	0,5	0,3	0,6	1,7	0,2	0,4	0,5	0,5	0,1
Galizia	2,4	0,8	0,7	0,7	1,5	3,7	2,6	1,2	0,5
Madril	7,2	28,4	23,5	11,4	18,0	25,8	26,8	25,4	16,6
Murtzia	2,8	3,4	2,5	9,1	3,9	1,3	5,3	1,8	0,9
Nafarroa	0,7	0,9	1,2	1,4	1,6	1,4	1,9	0,6	0,4
Euskadi	1,6	1,0	1,4	1,7	2,9	3,4	2,8	2,4	1,7
Errioxa	0,4	0,3	1,3	1,1	0,8	0,6	0,7	0,3	2,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EInko datuak.

Katalunia (% 55,3). Lehen esan dugunez, osatera horrek zerikusi handia du erkidego kontinenteen arabera atzerritarren banaketarekin. Latinoamerikar gehiago dauden erkidegoetan, emakumeen indizea handiagoa da atzerritarren populazioan. Madrilen, adibidez, sexuei dagokienez, ehuneko banaketa ia berdina da: % 50,3 gizonezko eta % 49,7 emakume daude. Euskadiko Autonomia Erkidegoko egoera Madrilekoaren antzekoa da: % 50,8 gizonezkoak dira eta % 49,2 emakumeak dira.

**4. Probintziak: banaketa eta ehunekoak**


2006ko eroldaren arabera, Espainian 4.144.166 immigrante bizi dira; beraz, kolektibo hori guztizko populazioaren % 9,3 da. Indize hori probintzien arabera aztertuz gero, ehunekoak aldatu egiten dira, batez ere, probintzia horiek zein Autonomia Erkidegotan kontuan hartuz gero. Beraz, orokorrean, erkidego bakoitzeko ezaugarriek ezarriko dituzte diferentziak probintzia bakoitzeko atzerritarren ehunekoetan.

Oro har, Mediterraneoan kostaldean dauden probintzietako eta Balear eta Kanariar Uharteetako atzerritarren kopurua estatuko batez bestekoa baino handiagoa da. Adibidez, Kataluniako probintziak (Gironan % 16,9), Valentiakoak (Alacanten, % 20,1) eta Balearak (% 16,8) aipa ditzakegu. Andaluziako Almeria (% 17,4) eta Malaga (% 13,7) probintzietan ere ehuneko estatuko batez bestekoa baino handiagoa da; hala ere, Andaluziako gainerako probintzietan, atzerritarren kopurua estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da. Mediterraneo aldean atzerritarren kopurua igotzearen arrazoiak, sektore jakin batzuetan, hau da, nekazaritzan, eraikuntzan eta turismoan, izandako eskaria izan daiteke.

Kontrako kasuan, Kantauri aldean dauden erkidegoetako atzerritarren kopurua estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da (Asturiasen, % 2,8 eta Kantabrian, % 4,2). EAEko probintziei dagokienez, Bizkaian eta Gipuzkoan atzerritarren indizea txikia da, Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (% 4) baino txikiagoa, alegia, zehatzago esanda, hurrenez hurren, % 3,8koa eta % 3,7koa. Araban, ordea, tasa hori handiagoa da (% 5,6) eta hurbilago dago Ebro ibaiko erkidegoetako probintzietako joeratik.

Amaitzeko, termino absolutuetan, EAEko hiru probintzietan atzerritarren populazioa urri samarra da, estatuko guztizkoaren % 2,05. Datu interesgarria da, hamabi probintzietan, atzerritarren kopurua EAEko guztizkoa (85.542) baino handiagoa izatea; besteak beste, Madrilen (800.512), Bartzelonan (645.737), Alacanten (359.150), Malagan (203.977) edo Almerian (110.656).

**1. mapa**  
Atzerritarren ehunekoak Autonomia Erkidegoen arabera. 2006



Iturria: EInko datuak.

**5. taula. Guztizko populazioa eta atzerritarren populazioa Espainian eta Euskadin (2006-2007)**

		Populazioa guztira	Atzerritarrek guztira	Atzerritarren%
Espainia	2006	44.708.964	4.144.166	9,3
	2007	45.116.894	4.482.568	9,9
EAE	2006	2.133.684	85.542	4
	2007	2.141.116	98.108	4,6
Araba	2006	301.926	16.857	5,6
	2007	305.300	19.309	6,3
Gipuzkoa	2006	691.895	25.290	3,7
	2007	694.744	28.883	4,2
Bizkaia	2006	1.139.683	43.395	3,8
	2007	1.141.072	49.916	4,4

Iturria: EInko datuak.

